

# Lagunen azkenengo agurra

**Etxebarrialde** baserriko mutil gaztia zan: **Ximon Aranburu Zabaleta**. Hogeta lau urte besterik ez eukan, baiña meningitis batek eruan eben 1930eko agorraren 25ian. Bere adiskidiak kanposanturaiño lagundu otzain hurrengo egunian loraz eta zinttaz apainduttako kajan. Hillen deposittuaren aurrian jarri ziran, fotografixia atara eta lagunari azkenengo agurra emuteko.

Difuntua baserrittarra zan, baiña herri-kaskotik urrin barikua. Horregatik-edo, argazkixan agiri diran gehixenak kaletarrak dittugu, edota kale-baserrikuak: San Juan kale, Kale Zahar, San Antue kale, Santa Marina, Kale Barri, Atzeko kale eta Lekunbarri-Portaleku aldekuak. Hil-kutxiari erantsitta dagozen zinttaz aparte, mutillok lepotik txintxiliz medailla bana dakoi, ***luistarrena*** seguruenik: hau da, San Luis Gonzagaren kongregaziñokua. Ezkerretik eskumara honeik dira ezagutu ahal izan dittugunak:

Beheko illaran: Joxe **Madina**, Atzeko kaleko Txurrukanekua; Alejandro **Irizar**, Kale Zaharreko Auntzolanekua; Joxe **Igartua**, Kale Zaharrekua; Luxiano **Igartua**, San Antue kaleko Frantzesianekua; Rufino **Arregi**, Santa Marinako Arrolanekua; X. X.; Faustino **Inza**, San Antue kaleko Txaiñanekua; Xiriako **Igartua**, San Antue kaleko Etxe Haundikua; Doroteo **Ugarte**, Arantzazu kalekua; Andres **Guridi**, Zumeltzegi Torrekua; Juanito **Ortiz**, Kale Zaharrekua; eta Agustin **Uranga**, Kale Zaharrekua.

Goiko illaran: Liño **Arrazola**, San Juan kalekua; Dionixio **Madina**, Obixaganekua; Anjel **Korkostegi**, Kale Barrikua; Matias **Anduaga**, Zumeltzegi Torreko gormutua; aurrekuaren atzian, Tomas **Odriozola**, San Juan kaleko Goiko Otxuena; Karlos **Astigarraga**, Tetuango Alegitarrena; Joxe **Altube**, Auzabarrikua; X. X.; Pedro **Zabaleta**, Altamira baserrikua; X. X., Kurpidekua [?]; Leonardo **Ugarte**, San Martin Zubikua; Joxe **Odriozola**, San Juan kaleko Goiko Otxuena; eta Pedro **Ugarte**, Altzibar Azpikua.

**J. E.**

Argazkixa Codina-k ataratakua da eta Nikolas Ugartek itxi dosku. Informaziñua Nikolasek ez ezik, Pilar Barrena, Regino Biain, Juli Odriozola, Patxi Irizar eta Jexux Irizarrek be samurtu doskue. Eskerrik asko danoiri!